

## NATURKLIMAREN JARDUKETEN MEMORIA 2023

2022ko azaroaren 30ean egindako Patronatu arruntean, 2023rako Jarduketa Plana aurkeztu zen, 2023an garatu beharreko jarduketa nagusiak zehazten dituena.

2023ko ekitaldian zehar garatzeko onetsi ziren 10 lan-ildoetako bakoitzerako, hona hemen jarduketaren gauzatze-maila, egoera eta izandako aldaketak, bai eta horien justifikazioa ere:

**1. 2023-2026 urteetarako ekintza-planak garatzea, fundazioaren eguneroko kudeaketetarako orientazioa eta zentzua emango dituen plan estrategikoaren arabera.**

Fundazioaren aurreko 2020-2022 plan estrategikoa kokatzen zen aldia amaitu denez –% 95eko betetze-mailarekin amaitu zen–, 2023an 2023-2026 aldirako Plan Estrategiko berri bat egiten amaitu da. Plan horrek Fundazioaren ibilbide-orri estrategiko berria dakar, eta aurretiazko Plan Estrategikoaren (2020-2022) egikaritzean izandako aurrerapenetan eta esperientzietan oinarrituta eraiki da. Planaren laburpen exekutiboa ekainaren 22ko patronatuan aurkeztu eta onetsi zen.

Prozesu horren bidez, Naturklima Fundazioak 4 ildo estrategiko aurreikusi ditu:

- I. 1. ildo estrategikoa: Klima-aldaketari buruz eskura dagoen informazioa sendotzea, administrazioaren erabakiak hobetzeko.
- II. 2. ildo estrategikoa: Gipuzkoako enpresa-saretik ekonomia hipokarboniko eta berderanzko trantsizioa bultzatzea eta bizkortzea.
- III. 3. ildo estrategikoa: Ezagutza sortzea eta transferitzea trantsizio ekologikoa bizkortzeko.
- IV. 4. ildo estrategikoa: Naturklima finkatzea trantsizio ekologikoa bizkortzeko tokiko, estatuko eta nazioarteko erreferentziazko fundazio kaudimendun, eraginkor eta efiziente gisa.

Ildo estrategiko horietatik 15 Helburu Estrategiko sortzen dira, 53 Jarduketa egikaritzuz lortuko direnak eta, oro har, Naturklimari aukera emango diotenak 2023-2026 ziklorako planteatzen diren funtsezko apustuak betetzeko, 2030erako bere misioarekin, ikuspegiarekin eta horizonte estrategikoarekin erabat lerrokatuta.

Ekainean onetsi zenetik, urteko ekintza guztiak jarduketa-planaren eta 2023-2026 plan estrategikoaren barruan egon dira, eta erabateko koherentziaz gauzatu dira bi dokumentuetan ezarritako helburuekin eta ildo estrategikoekin.

Irailean, kanpoko laguntza tekniko bat kontratatu zen, 2023-26 Plan Estrategikoaren errealitatea eta desbideratzeak 2023an doitzeko neurriak eta betetze-maila ikuskatzeko honelakoak barnean hartuz: (1) gaur egungo egoeraren berrikuspena eta Plan Estrategikoa osatzen duten egiturazko 15 helburu estrategikoen analisi estrategikoa egungo errealitatearen arabera; eta (2) Naturklimak garatu dituen funtsezko Kudeaketa Estrategikorako DPR dokumentuen garapenaren eta horietatik lortzen diren funtsezko adierazleen (KPI) analisia.

## **2. Fundazioaren Komunikazio Plana zabaltzea, Naturklima Gipuzkoako klima-aldaketan erreferente gisa eta Ekonomia Berdearen (Ekonomia Zirkularra eta Trantsizio Energetikoa) motor gisa kokatzeko.**

Kontuan izanik 2023an amaitzen zela Miramon Parke Teknologikoko behin-behineko egoitzan Naturklimak emandako etapa eta etapa berria hasiko zuela bere behin betiko egoitzan, Naturklimaren jarduera-memoria bat egin zen, 2019tik 2022ra bitartean lortutako jarduketa, mugarri eta emaitza nagusiak jasoko zituen. Memoria urteko lehen hiruhilekoan egin zen, eta martxoan aurkeztu zen Naturklima Eraikinaren inaugurazio-ekitaldian. Horrela, Fundazioak izan duen ibilbidea sozializatu zen, bai eta Fundazioak behin betiko egoitzan instalatuz hasi duen etapa berrian aurre egin beharreko erronkak eta jarduera-lerroak ere.

Fundazioaren komunikazioari dagokion guztia Jasangarritasun Departamentuarekin erabat koordinatuta gauzatu da, Naturklimaren urteko mugarri nagusi propioak (edo Naturklimak presentzia nabarmena izandakoak) azpimarratuz: Mugarri nabarmen horiek bakarrik aipatuko

ditugu, egindako gainerako ekitaldi, jardunaldi eta komunikazio-ekintzak dagozkien jarduerak-  
lerroetan jaso eta azalduko direlako:

- Gipuzkoako Borondatezko Karbono Funtsaren aitortpen-ekitaldia (otsaila).
- Gipuzkoako ikastetxeentzako Klima-aldaketari eta GJHei buruzko sentsibilizaziorako eta prestakuntzarako “Generation Z & Climate Change” programaren esparruan egindako jarduerak zabaltzea (otsaila).
- Recycling TOP jardunaldiak Jasangarritasun Sailarekin lankidetzan (urtarrila eta martxoa).
- Naturklima eraikinaren inaugurazio-ekitaldia (martxoa).
- “Enpresen erronkak klima-aldaketaren aurkako borrokan, ekonomia zirkularra sustatuz” IV. programa abiaraztea (maiatza).
- Klima-aldaketak Gipuzkoan duen kalteberatasunari eta inpaktuari buruzko urteko txostenaren aurkezpena (iraila).
- Gipuzkoa Basket saskibaloi-taldearekin sentsibilizazio-kanpaina hedatzea herritarrei eta ikasleei zuzendutako jasangarritasunaren eta klima-aldaketaren aurkako borrokaren arloan (urte osoan zehar).
- Klima Bai! lehiaketa abian jartzea eta sarien banaketa ofizialaren ekitaldia. Universitas (iraila eta urria).
- Borondatezko Karbono Funtsa Garapen Agentziei (iraila) eta ADEGIIn (azaroan) aurkezteko jardunaldia.
- Baterien HUBa abiarazteko ekitaldia: Zirkular Bat+ (azaroa).

### **3. Gipuzkoako klima-aldaketaren behatokiaren jarduerak garatzea:**

1. Arintzearen eta egokitzearen arloetan ezarritako adierazleen koadroaren analisia, datuak aztertzea eta interpretatzea.

Adierazleen koadroa etengabe irekita dago aldaketa eta berrikuspenetarako, datu zientifiko-tekniko berrien argitalpenean oinarrituta. Gipuzkoako Klima Aldaketaren Aurkako Borroka Estrategia 2050en (GKAABE) 7.2.3 ekintzarekin bat.

2. Gipuzkoako klima-aldaketaren inpaktuari eta kalteberatasunari buruzko urteko IV. txostena – Baliabide hidrikoak egitea.

Txostenak bi atal edo bloke ditu: (1) Klima eskala globaletik tokiko eskalara; eta (2) Klima-aldaketak Gipuzkoako baliabide hidrikoetan dituen efektuen analisia. 2023ko irailean argitaratua eta Naturklima Eraikineko Entzunaretoan jendaurrean aurkeztua. Gipuzkoako Klima Aldaketaren Aurkako Borroka Estrategia 2050en (GKAABE) 7.2.4 ekintzarekin bat.

3. Gipuzkoako BEG isurien inbentarioari buruzko urteko txostena egitea (2021). Gipuzkoako Klima Aldaketaren Aurkako Borroka Estrategiaren (GKAABE) 7.3.2 ekintzarekin bat egiten da, eta aukera ematen du Gipuzkoako Klima Aldaketaren Aurkako Borroka Estrategiaren helburuen lorpena neurtzeko eta ebaluatzeko, isuriak sektore tradizionaleri dagokienez aztertuz: energia, industria, garraioa, bizitegi-sektorea, zerbitzuak, nekazaritza eta hondakinak.
4. FOCUS txostenak prestatzea: klima-aldaketak Gipuzkoan duen inpaktua aztertzeko garrantzitsuak eta interesgarriak diren adierazleei eta gaiei buruzko txosten monografikoak. Txostenen helburua da gai oso zehatz bati buruz egindako lana herritar guztiei zabaltzea. Gipuzkoako Klima Aldaketaren Aurkako Borroka Estrategia 2050en (GKAABE) 3., 4. eta 5. jomugekin bat.

4.1. FOCUS txostena: Intentsitate handiko prezipitazioak (otsaila).

4.2. Itsasoko eta Kostako Behatokiaren FOCUS txostena (abuztua):

Gipuzkoako klima-aldaketaren inpaktuari, kalteberatasunari eta egokitzeari buruzko txostena, 2022an AZTI Fundazioarekin (arloko Euskadiko eragile aditu eta bakarra) egindako lankidetzaren esparruan egina. Txostena zentratu zen kostaldeko itsasertzeko eremuarekin gehien lotutako klima-aldaketaren adierazleetan, honelakoak behatzeko eta aztertzeko nahiz honelakoen jarraipena egiteko: itsas mailaren igoeraren ondoriozko uholde-arriskuak; muturreko olatuen ondoriozko kostaldeko inpaktuak; hondartzen eta hareatzen atzerakada; itsasertzeko habitaten galera eta erresilientzia; itsas

ekosistemaren berrantolaketa; itsas baliabideen galera eta aukerak; eta arrantzaren, turismoaren, portuen eta osasunaren sektoreetako arrisku sozioekonomikoak.

5. Itsasoko eta Kostako Behatokia, itsasertzeko eta itsasoko eremuko klima-aldaketaren adierazleak behatzen eta aztertzen nahiz haien jarraipena egiten jarraitzeko eta inpaktuari eta kalteberatasunari buruzko etorkizuneko txostenak egiteko.

Jarduera garatzeko kontratu bat egin zen 2023an AZTI Fundazioarekin, lizitazio-prozesu baten ondoren. Gipuzkoako Klima Aldaketaren Aurkako Borroka Estrategia 2050en (GKAABE) 7.2.3 ekintzarekin bat.

6. Klima Aldaketaren Behatokiaren Control Room-erako hardwarea eta software espezializatua eskuratzea.

Behatokiak iturri desberdinei (AEMET, Estatuko Portuak, EUSKALMET...) dagozkien datuak biltzeko duen zeregina errazteko, 2023an eguneratu eta garapen berriak egin dira adierazleen jarraipena egiteko automatizazio-aplikazio informatikoan. Gipuzkoako Klima Aldaketaren Aurkako Borroka Estrategia 2050en (GKAABE) 7.3.2 ekintzarekin bat.

#### **4. Gipuzkoako Borondatezko CO<sub>2</sub> funtsaren garapena eta kudeaketa.**

ALDEZ AURREKO OHARRA: 2023ko Jarduketa Planean, jarduera hau 3. jarduera-lerroaren barruan zegoen (“Gipuzkoako klima-aldaketaren behatokiaren jarduerak garatzea”). Fundazioaren jardueran urtean zehar duen garrantzia eta pisua kontuan hartuta, egokia iruditu zaigu entitate propioa ematea eta dokumentu honetan atal gehigarri gisa tratatzea.

Gipuzkoako Klima Aldaketaren Aurkako Borroka Estrategia 2050en (GKAABE) 1., 3., 4. eta 5. jomugak.

2023ko urtarrilean, 2022ko Borondatezko Funtsaren memoria eta jarduera-txostena egin ziren.

Otsailean, proposamen bat prestatu zen CO<sub>2</sub> tonaren prezioa eguneratzeko Borondatezko Funtsaren konpentsazioetarako (tona bakoitzeko 8,8 €-tik 10,5 €-ra), 2022an izandako prezio-igoera kontuan hartuz, egindako murrizketa- eta konpentsazio-proiektuek aurreikusten ziren

helburuak betetzen dituztela ziurtatzeko. Bestalde, prezio hori aldian-aldian eguneratzea proposatu zen, esperientzian oinarrituta eta merkatuaren bilakaerari eta landatze- eta mantentze-premiei erantzunez. Proposamena Fundazioaren patronatuan apirilean aurkeztu eta onetsi zen.

Duen garrantzia dela-eta, urteko lehen hiruhilekoan Gipuzkoako Borondatezko Karbono Funtsaren 2023ko Jarduketa Plan propio batean lan egin zen, eta Trantsizio Ekologikorako Zuzendaritzak 2023ko apirilean balidatu zuen. Jarduketa-plana alderdi hauetan oinarritu zen: Naturklimak Funtsa hedatu zuen hilabeteetan egindako barne-analisia; proposamen estrategikoan egindako lana (“Gipuzkoako Borondatezko Karbono Funtsaren bidez isuriak konpentsatzeko eskaeren kudeaketa operatiboaren definizio estrategikoa”), kanpoko profesionalek 2022an Naturklimarentzat egindakoa; enpresek emandako feedback-a; eta 2022ko udazkenean THE BREAK programan parte hartu zuten emakume ekintzaileen bi taldeekin egindako lana.

Jarduketa Planean 2023rako aurreikusitako lehentasunezko jarduerak lau bloke nagusitan bildu ziren, eta bloke horiek erabili ditugu eta erabiliko ditugu ekintzak gauzatzeko gida gisa eta egindako jarduketa nagusiak zerrendatzeko:

### **1. Aurreko urteetan konpentsatu duten enpresak leialtzea.**

- a. Borondatezko CO<sub>2</sub> Funtsaren urteko aitorten-ekitaldia
- b. 2023ko otsailean, 2022an zehar aztarna konpentsatu zuten enpresen aitorten-ekitaldia egin zen. Erakunde bakoitzari aitorten bat eta ziurtagiri bat eman zitzaizkion, horretarako diseinatuak. Ekitaldian, konpentsazioen datuak eta CO<sub>2</sub> Funtsaren bestelako informazio garrantzitsua aurkeztu ziren, Jardueraren Urteko Txostenean jasoak.
- c. Focus group taldea osatzea aurreko urteetan konpentsatu zuten enpresekin (ekaina). Lan-saioaren helburua da beren karbono-aztarna konpentsatu duten erakundeen esperientzia ezagutzea, bai eta erakundeen kopurua handitzeko txertatu daitezkeen hobekuntzak ere, enpresa berriak erakarriz.
- d. Egindako konpentsazio-proiektuen informazioa jarraitutasunez ematea.
- e. 2022an Borondatezko Funtsaren zabalkunde-ekintza guztietan isuriak konpentsatu zituzten erakundeen sustapena eta presentzia: proiektuen

kartelak eta fitxak, enpresei aurkezteko jardunaldiak, funtsaren erakustokia eta dossier komertzialak, etab.

## 2. Enpresa berriak erakartzea.

- a. Karbono-aztarna kalkulatu duten Gipuzkoako enpresen datu-basea.

Hainbat iturritan (propioetan nahiz kanpokoetan) eskuragarri dagoen informaziotik abiatuta, beren karbono-aztarna kalkulatu duten enpresen eta erakundeen barneko datu-base bat prestatu da: nahitaezko urratsa da Borondatezko Karbono Funtsaren interesdun potentzial gisa konpentsatu ahal izateko. Urtean zehar beren karbono-aztarna kalkulatu duten edo gaur egun kalkulatu ari diren 155 enpresa identifikatu dira guztira.

Egindako erakarpen-ekintza guztiak –ondoren azalduko ditugu– bideratu dira Gipuzkoako enpresen artean Borondatezko Karbono Funtsaren ikusgaitasuna maximizatzera, eta, batez ere, aztarna kalkulatu zeukaten edo kalkulatzeko prozesuan zeuden Gipuzkoako enpresen % 100ek Borondatezko Karbono Funtsa existitzen dela jakin dezaten eta beren aztarna konpentsatzeko tresna erakargarri gisa baloratu dezaten.

- b. Enpresa konpentsatzaile potentzialekin zuzeneko harremana eta bilera komertzialak.

Enpresei lehenespena eman zaie beren aztarna konpentsatzeko tamainaren, interes estrategikoaren eta interes potentzialaren nahiz gaitasunaren arabera, eta zuzenean 120 enpresa baino gehiagorekin jarri gara harremanetan karbonoaren borondatezko funtsa aurkezteko. Kontaktuaren ondoren, 75 inguru elkarrizketa eta/edo bilera komertzial egin dira enpresa potentzialekin.

Bilerak eta elkarrizketak egin dira enpresa oso ezagunekin; besteak beste: ABB Niessen, ADEGI, Askora Plus, Mondragon Korporazioa, CAF Power & Automation, Gipuzkoako Ingeniarien Elkarte, EHU/UPV, Ecogras Taldea, Euskabea, Giroa-Veolia, SADE Taldea, Herrekor, Lagumar Seas (Angulas Aguinaga), Jaso Equipos de Obras y Construcciones, Kendu, LKS Krean, NGS, Ondarreta, Ormak Construcciones, Papresa, Plastigaur, Salto Systems, Ternua, Tratamientos Geuria,

Uvesco, Vicomtech, Nafarroako Unibertsitatea-Tecnun eta Deustuko Unibertsitatea.

c. Borondatezko Karbono Funtsaren sustapen-informazioa bidaltzea jasangarritasunarekin konprometitutako enpresei.

Zuzenean harremanetan jarri ez garen enpresei (lehenespenean hautatu ez direlako) mezu elektronikoko generiko bat bidali zaie borondatezko funtsari buruzko sustapen-informazio eguneratuarekin. Borondatezko Funtsaren sustapeneko bi mailing-kanpaina egin dira:

1. Ekainean, karbono-aztarna kalkulatzeko GFAko Jasangarritasun Departamentuaren dirulaguntzen onuradunak izan diren 36 enpresei, enpresa konpentsatzaile potentzial gisa.
2. Azaroan, Naturklimaren iritziz jasangarritasunari dagokionez interesa eta konpromisoa erakusten duten 139 enpresari, beren karbono-aztarna kalkulatu ala ez. 139etatik 59k beren aztarna kalkulatu zeukaten edo kalkulatzeko prozesuan zeuden.

d. CO<sub>2</sub> Funtsaren aurkezpena hainbat enpresa-foro eta -topaketatan:

- i. Karbono Funtsari buruzko hitzaldia Jardunaldian, TEZNrekin batera, ADEGIko Hotelen Elkartearekin (otsaila)
- ii. Karbono Funtsari buruzko azalpen xehatua enpresei HABIC Klusterraren Jasangarritasun eta GJH Taldearen bileran (otsaila)
- iii. Karbono Funtsari buruzko azalpen xehatua enpresei ADEGI TOP ABB NIESEN jardunaldian (otsaila)
- iv. Hitzaldi teknikoa "Gipuzkoako turismoaren karbono-aztarna kalkulatzeko eta konpentsatzeko tresnak" jardunaldian, Hub Gipuzkoa Turismoarekin (apirila)
- v. Funtsari buruzko azalpen xehatua ADEGIk antolatutako Jasangarritasunari eta GJHei buruzko zikloko saioretan (maiatza).
- vi. Online hitzaldia eta Borondatezko Karbono Funtsaren azalpen-bideoaren prestaketa Kutxa Fundazioaren Gazte Ekoliderrak Programarako (maiatza)



- vii. Hitzaldia Bioterra Azoka 2023an: “Gipuzkoako Karbono Funtsa: klima-aldaketa arintzeko eta klima-aldaketara egokitzeko tresna” (ekaina)
  - viii. Karbono Funtsari buruzko azalpen xehatua enpresei ADEGI TOP Kanpezuko jardunaldian (ekaina)
  - ix. Borondatezko Funtsa aurkeztea Gipuzkoako Garapen Agentzietako eta Gipuzkoa Merkatariak Federazioko ordezkariari (iraila). Aurkezpenaren helburua zen Borondatezko Funtsa ezagutaraztea haien enpresararako intereseko tresna gisa. Ekitaldian, agentziek eta federazioak egindako ekarpenak eta adierazitako kezkek jaso ziren, etorkizunean Borondatezko Karbono Funtsean interesa duten erakunde guztiekin (beren saltokiekin eta enpresa elkartuekin) jardunaldi bat egiteko (datozen hilabeteetan).
  - x. “Enpresen karbono-aztarna kalkulatzeko eta konpentsatzeko tresna: Gipuzkoako borondatezko karbono-funtsa” jardunaldia, ADEGIIn (azaroa).
- e. Borondatezko Karbono Funtsaren sustapen-kanpaina
- Kanpaina koordinatu zen Jasangarritasun Departamentuko Komunikazio-lantaldearekin, borondatezko funtsa ezagutzera emateko jasangarritasun-ekintzetan interesa duten Gipuzkoako enpresa eta erakunde guztiei. Horretarako, azaroaren hasieran, hilabete inguruko marketin digitaleko kanpaina bat egin da kanpoko laguntza tekniko baten bidez. Emaitzak onak izan dira ikusgaitasunari dagokionez (funtsaren 55.000 bistaratze baino gehiago lortu dira), baina espero baino okerragoak funtsean interesa duten enpresak erakartzeari dagokionez (508 klik iragarkietan eta lead/enpresa-kontaktu 1 erakarri da).
- f. Aliantzak eragile laguntzaileekin, sustapenerako eta zabalkunderako:
- i. Lankidetzeta-hitzarmena Gipuzkoako Hotelen Elkartearekin (otsaila): helburua da Gipuzkoako Hotelen Elkartearen eta Naturklimaren arteko lankidetzeta estua ezartzea, Gipuzkoako hotel-sektorean jasangarritasuna sustatzeko eta bultzatzeko ekintzak eta klima-aldaketaren aurkako borrokarako ekintzak egiteko asmoz (besteak beste, Borondatezko Karbono Funtsa sustatzea).

- ii. Lankidetzeta-hitzarmena ASCONGI Gipuzkoako Eraikuntzako Enpresen Elkartearekin (martxoa): helburua da ASCONGIren eta Naturklimaren arteko lankidetzeta estua ezartzea, eraikuntzako, higiezinaren sustapeneko eta birgaitzeko enpresei laguntzeko ekintzak elkarrekin egiteko asmoz eraikuntza jasagarriko ereduranzko trantsizioan (besteak beste, Borondatezko Karbono Funtza sustatzea).
  - iii. 2023ko jarduketa-planean, 2022an egindako “Gipuzkoako Borondatezko Karbono Funtzaren bidez isuriak konpentsatzeko eskaeren kudeaketa operatiboaren definizio estrategikoa” dokumentu estrategikoan ezarritakoari jarraituz, enpresak erakartzeko neurri garrantzitsu gisa jasotzen da zuzeneko harremana eta aliantzak sortzea ingeniaritza-enpresa nagusiekin, ingurumenaren aholkularitza-enpresekin nahiz enpresei karbono-aztarna kalkulatzeko zerbitzua eskaintzen dieten Gipuzkoako bestelako aholkularitza-enpresekin, horiek baitira lehen mailako preskriptore nagusiak, CO<sub>2</sub> Funtsean borondatez parte hartu nahi duten enpresa txiki eta ertainak nahiz enpresa handiak sartzeko oztopoaren euskarri izango diren pizgarri instituzionalen zorro bat eskaintzeko interesak eraginda. Alde horretatik, 2023an zuzeneko harremana mantendu da, eta bilera puntualak egin dira horietako batzuekin; horietako batzuek Funtzaren bidez ere konpentsatu dute 2022an eta/edo 2023an.
- g. Beste erakarpen-ekintza batzuk
- i. Naturklimak Gipuzkoako Merkataritza Ganberarekin 2023an egindako “Ekonomia Zirkularra eta ETEak” azterketan, atal nabarmen bat gehitu da deskarbonizazioari dagokionez Gipuzkoako ETEen egoera aztertzeko. Horretarako, ekainean Gipuzkoako 659 ETEri azterketaren zati gisa bidalitako galdetegian, atal espezifiko bat sartu zen borondatezko karbono-funtsari buruz zuten ezagutzaz galdetzeko, eta funtzaren existentziari buruzko oinarritzko prestakuntza ematen zitzaien.
  - ii. Naturklimak edozein enpresarekin duen bilera bakoitzean Borondatezko Karbono Funtza ezagutzera ematen da, fundazioaren

jardueraren funtsezko ildo gisa eta enpresarentzat erakargarri gisa aurkeztuz.

### **3. CO<sub>2</sub> Funtsaren informazioa eta prozedurak hobetzeko ekintzak**

- a. CO<sub>2</sub> Funtsaren jardueraren 2022ko Urteko Txostena egitea eta webgunean argitaratzea.
- b. Kontentsatzen duten enpresak erregistratzeko prozedura.
- c. Naturklimaren webgunean FAQ (Frequently Asked Questions) atala sortzea CO<sub>2</sub> Funtsaren funtzionamenduari buruzko galdera ohikoenei erantzuteko, enpresek karbono-funtsak funtzionatu duen hilabeteetan zehar helarazi dizkiguten zalantza eta arazo nagusietan oinarrituta.
- d. Aztarna kalkulatzeko Enpresentzako Gidaliburua prestatzea eta kalkulagailu nagusietarako sarbidea.
- e. Naturklima Fundazioaren 2022ko Karbono-aztarnaren kalkulua (1., 2. eta 3. irismenak), eta kalkulu-txostena webgunean argitaratzea erreferentzia gisa.
- f. Egindako proiektuen proiektu-fitxak prestatzea eta argitaratzea.
- g. CO<sub>2</sub> Funtsaren informazio- eta sustapen-bideoa egitea.
- h. CO<sub>2</sub> Funtsaren txosten komertziala egitea enpresa-kolektiboaren artean funtsa azaldu eta sustatzeko.
- i. Karbono Funtsaren erakustokia Naturklima eraikinean, Funtsari buruzko informazio orokorrarekin eta egindako proiektuen fitxekin.

### **4. Proiektuak garatzea eta proiektu-zorroa definitzea.**

Jasotako dohaintzak Naturklimak kudeatuko ditu, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Trantsizio Ekologikoko Zuzendaritza Nagusiaren pean, eta lurraldean bertan kontentsazio-proiektuak sustatzera eta exekutatzera bideratuko dira, hala nola azpiegitura berdeak edo CO<sub>2</sub> hustulekuak hobetzea, lurraldean energia berriztagarriak hobetzea, ekonomiaren deskarbonizazioa edota ekonomia zirkularra.

Jarduketa hauek egin dira:

- a. TEZNrekin koordinatuta, CO<sub>2</sub> Funtsak gauzatu beharreko Azpiegitura Berdeen proiektuak hautatzeko balorazio-irizpideak ezartzea. Egin, bidali eta urtarrilean onetsi ditu TEZNe.
- b. Etxolazarreta proiektua (Irun, urtarrila-apirila): su hartutako baso-eremuan jardutea lehendik zegoen baso-masa berrezartzeko.
  - i. Xurgatze-proiektua MITERDen aztarnaren, konpentsazioaren eta CO<sub>2</sub> xurgapen-proiektuen erregistroan inskribatzea.
- c. Mikroklima proiektua (urria-abendua): proiektuak Kutxa Fundazioaren finantzaketa lortu zuen 2022an (100.000 € 2023tik 2024ra bitartean). Proiektuaren esparruan, lau mikrohezegune sortu dira Lasain-Gogortegin (Irungo Aiako Harria parkean), Aranzadi eta TEZNren lankidetzarekin, zenbait anfibio-espezie kontserbatzeko (klima-aldaketak eta haren ondorioz habitatean eta ekosistemetan eragindako inpaktuek bereziki mehatxatutako taldeetako bat). Gainera, habitat horiei lotutako beste flora- eta fauna-espezie batzuk egokitzen lagunduko dute.
- d. Gipuzkoa Basketekin landatzea eta garbitzea (abendua): Naturklimak Gipuzkoa Basketekin duen hitzarmenaren esparruan, aurreikusitako ekintzen artean, jokalariekin Gipuzkoako lursail batean batera landaketa bat antolatzea dago, Karbono Funtsaren proiektu gisa. Abenduan egina Donostialdean.
- e. TEZNrekin koordinatuta, udal-proiektuen proposamenen deialdia prestatzea proiektu-zorro bat izateko CO<sub>2</sub> Funtserako.
  - i. Naturklimak (NK) prestatu eta IZNk balidatu ditu proiektu-tipologiak eta balorazio-irizpideak (otsaila).
  - ii. TEZN eta NKren arteko jardunaldi bateratua (martxoa): helburua da aurreikusitako deialdia udalei aurkeztea (oraindik abiarazte-data esleitu gabe), Azpiegitura Berdeen Sarerako hobekuntza-arloen esparruan dauden eta Funtsaren inbertsio-proiektuetan garatu beharreko proiektuen zorroaren parte izan daitezkeen udal-proiektuen proposamenak jasotzeko.

- iii. Gauzazko dirulaguntzen deialdia abiaraztea klima-aldaketaren inpaktuen aurrean Gipuzkoako Lurralde Historikoaren azpiegitura berdeak, konektagarritasun ekologikoa eta erresilientzia hobetzeko xedea duten udal-proiektu eta -jarduketak gauzatzeko. Fundazioaren patronatuan irailean horri buruz egindako aurrerapenen berri eman zen, eta azaroan aurkeztu eta onetsi zen Fundazioaren patronatuan.

## 5. Circular Recycling HUBeko jardueren garapena.

### 1. **Baterien HUB zirkularra abiaraztea, garatzea eta kudeatzea: Zirkular Bat+ Ekosistema.**

2022an hasitako gogoeta- eta planteamendu-lanaren ondoren, 2023an Zirkular Bat abiarazi da, TEZNren, Naturklimaren, CIDETECen eta Gipuzkoako hainbat enpresaren arteko lankidetzeta-hub publiko-pribatua, enpresa-komunitate bat sortzeko asmoz Gipuzkoan baterien irismen globaleko ekosistema zirkular bat sustatzeko helburuarekin.

Zirkular Bat proiektu integral gisa kokatzen da, baterien kudeaketa jasangarriari eta zirkularrari balio-kate osoan heltzeko, isuriak murrizteko eta bateria berrien fabrikazioan materia kritikoen mendekotasuna gutxitzeko, osagaiak birziklatzeari eta berrerabiltzeari esker.

Bateriak bizitza baliagarriaren amaieran berreskuratzeaz eta berrerabiltzeaz gain, Gipuzkoaren mendekotasun energetikoa gainditzen ere laguntzen du, energia-komunitateetan berrerabiliz, Gipuzkoako mugikortasunaren eta energiaren sektorean aurrerapen ekonomikoa eta enplegua sustatuz.

Horretarako, jarduketa hauek egin dira 2023an:

- 1.1. CIDETECekin lankidetzeta-hitzarmena sinatu da, Gipuzkoan baterien birziklatzearen inguruko jarduera ekonomikoa sortzeko estrategia bat garatzeko, bi lan-ildo nagusi barne:

- 1.1.1. Baterien birziklatzerako balio-kate bat sortzeko agenda estrategikoaren definizioa: Tokiko eragileen eta gaitasunen egungo mapa; inplikaturako industria-, teknologia-, erakunde- eta gizarte-eragileen komunitate bat

sortzeko beharrezkoak diren elementuen definizioa; Europako testuinguruko zuzentarauen eta esperientzien azterketa; baterien birziklatzerako balio-kateko negozio-aukeren definizioa; I+G arloko aukera-areen identifikazioa; azpiegituren mailako inbertsio-beharren definizioa; eta finantzaketa-aukeren identifikazioa.

1.1.2. Estrategia martxan jartzeko laguntza: Hub-a martxan jartzea inplikaturako eragileekin; marka sektorialaren irudi bat sortzea; eta estrategia zabaltzea eta balioan jartzea.

1.2. Gipuzkoan baterien Hub Zirkular bat abiarazteko, hedatzeko eta dinamizatzeko zerbitzua kontratatzekeko lizitazioa.

1.2.1. Baterien balio-kateko eragileen ekosistema dinamizatzeko lanak (CIDETECekin koordinatuta): baterien berrerabiltzearen eta birziklatzearen balio-katearen analisia.

1.2.2. Hitzarmenaren eta zerbitzu-kontratuaren esparruan egin beharreko lanen jarraipen-bilerak.

1.3. Baterien Zirkular Bat+ Ekosistema abiarazteko ekitaldiaren antolaketa (azaroa).

## 2. Naturklimak enpresa-sektorearekin eta ekosistema ekintzailearekin duen lotura eta aliantzen sorrera indartzea.

2.1. Bilerak eta elkarrizketak egin dira Gipuzkoako 80 erakunde ingururekin (enpresak, ekintzaileak eta sektoreko ordezkariak, batez ere). Horietan, Naturklima Fundazioa aurkeztu zaie eragile laguntzaile gisa klima-aldaketarekin, ekonomia zirkularrarekin edo jasangarritasunarekin lotutako ekintzak beren erakundeetan inplementatzeko.

2.2. Lankidetzeta-hitzarmena sinatu da ADEGIko Hotelen Elkartarekin, jasangarritasuna sustatzeko eta bultzatzeko ekintzak eta Gipuzkoako hotel-sektorean klima-aldaketaren aurka borrokatzeko ekintzak antolatzekeko (otsaila).

Hitzarmenaren esparruan, otsailean Karbono Funtza aurkeztu zen ADEGIIn, TEZNrekin batera, Gipuzkoako hotel-sektoreari zuzendutako jardunaldian.

- 2.3. Lankidetzeta-hitzarmena sinatu da ASCONGIrekin (Gipuzkoako Eraikuntzako Enpresen Elkarte), eraikuntzako, higiezinaren sustapeneko eta birgaitzearen eremuko enpresei laguntzeko ekintzak egiteko eraikuntza jasangarriko eredurantzko trantsizioan (martxoa).

Hitzarmenaren esparruan, Naturklima Eraikinak ASCONGIren 2023ko Urteko Batzarra hartu zuen ekainean, eta eraikinaren eta Fundazioaren jardueraren xehetasunak azaldu zitzaizkien.

- 2.4. Ekintzailetza-ekosistemari dagokionez, lankidetzeta estua mantendu da ADEGIko Ekintzaileen Foroarekin, 2022an sinatutako hitzarmenaren esparruan, ekintzailetzako jasangarritasunaren eta ekonomia zirkularraren arloko pizgarri- eta laguntza-programetan elkar osatzeko; eta enpresari berriek behar dituzten laguntzen, prestakuntzaren eta mentorizazioen esparruan; hau da, beren proiektuak asmatzeko, eratzeko, abiarazteko eta finkatzeko/profesionalizatzeko faseetan.

### **3. Gipuzkoako enpresa-sektorean dauden Ekonomia Zirkularraren ekimenak indartzen, hobetzen eta sendotzen laguntzea:**

- 3.1. Gipuzkoako Ganberarekin lankidetzan, 'Ekonomia zirkularrari eta ETEei buruzko azterketa Gipuzkoan' egin zen. Azterketan, Gipuzkoako ETEek ekonomia zirkularraren inguruan duten ezagutza-maila eta arlo horretako estrategien eta ekintzen inplementazio-maila aztertu dira, bai eta ekonomia zirkularrak Gipuzkoako ETEentzat sortzen dituen aukera, zailtasun eta erronka nagusiak ere.

Azterketan, lurraldeko 150 enpresak hartu dute parte guztira, 10 sektore desberdinetakoak. Horrek esan nahi du 3.425 milioiko fakturazioa edo Gipuzkoako enpresen fakturazio osoaren % 32.

- 3.2. Ekonomia Zirkularraren eta GJHen autodiagnostikorako Gipuzkoako ETE industrialetarako garatutako Circular Scan tresna kudeatzea eta zabaltzea.

3.3. Gipuzkoako saltokietan Ekonomia Zirkularraren eta GJHen autodiagnostikorako 2022an garatutako “Dendatu” tresna kudeatzea eta zabaltzea, Ingurumen Zuzendaritza Nagusiarekin eta San Sebastián Shops-ekin lankidetzan.

Dendatu tresnaren esparruan, hileko buletin bat prestatu da jasangarritasun-ekintzak ezarri nahi dituzten saltokientzat, esparru horretan informazio estrategikoa zabalduz eta hilero Gipuzkoako denda erreferente bati ikusgarritasuna eta aitorpena eskainiz praktika jasangarrien aplikazioari dagokionez.

3.4. TEZNri laguntzea EHU/UPVko ekonomia- eta enpresa-ikasketetako Ekonomia Zirkularraren Ikasgelaren esparruan.

3.5. Etengabeko zaintza teknologikoa eta informazio estrategikoaren zabalkundea ekonomia zirkularrarekin lotutako jarduera duten enpresentzat: batez ere GK Recycling-en hileko buletina, ‘Dendatu’ren hileko buletina, mailing puntualak eta enpresekin egindako bilerak baliatuta.

3.6. GK Recycling klusterraren, bertako enpresa bazkideen eta ekonomia zirkularrarekin lotutako proiektuen ikusgaitasuna eta hedapena:

3.6.1. Recycling TOP jardunaldiak Jasangarritasun Sailarekin lankidetzan; GK Recycling-eko hainbat enpresarekiko aldizkako topaketak dira, haien esperientzia eta jarduera partekatu eta elkar ezagut dezaten (lankidetzarako eta sinergiak sortzeko lehen urrats gisa). 2 Recycling TOP jardunaldi egin dira: Garbera (urtarrila) eta Alinifinitum/Insertec (martxoa).

3.6.2. Hilero GK Recycling-eko enpresa bati buruzko erreportajea egitea, izandako jarduera ezagutzera emateko Naturklimaren blogean eta buletinean. 10 erreportaje egin dira guztira (Recreakult, Uvesco, Metal 78, Sinnple, Egutegui, Scrap Ad, Cementos Rezola, Euskabea, Orloga eta Mater).

3.7. Azterketa bat egitea 2024an Naturkliman baliabide-materioteka bat eta Circular Lab bat martxan jartzeko, Gipuzkoako enpresen premiei erantzuten diena.



3.7.1. Materioteka tokiko, lurraldeko eta nazioko erreferentziatzeko gune gisa, Gipuzkoako lurraldeko enpresetan sortutako hondakinen eta baliabideen tipologia desberdinak sailkatzeko, informatzeko eta zabaltzeko. Lehendik dauden materialen dibulgazioa eta zabalkundea egiteko gunea, konponbide berritzaileak sortzeko; lehendik dauden materialentzako erabilera berriak identifikatzeko; ikerketa, prototipatzea eta material berrien sorkuntza sustatzeko, hondakinak lehengai bihurtuz; industria-sinbiosia bultzatzeko; edo produktuen lehiakortasuna eta jasangarritasuna sustatzeko, berrikuntza eta ekonomia zirkularreranzko trantsizioa bultzatuz. Azken batean, lankidetzeta eta berrikuntza errazten eta sustatzen dituen gunea.

3.7.2. Circular Lab edo Fablab bat material eta balio erantsiko produktu berriak garatzea bultzatzen duten hondakinekin/baliabideekin esperimentatzeko eta prototipatzeko.

**4. Lurraldeko enpresak babestea eta dinamizatzea Ekonomia zirkularreko negozio-aukerak identifikatzeko, bai eta esparru horretako berrikuntza-proiektuak asmatzeko eta garatzeko ere: networking guneak, hackatoiak, parte-hartze bidezko prestakuntza, arrakasta-kasuen hedapena, negozio-aukera berriak, lantaldeak, 'joint-venture'ak, etab.**

4.1.1. Enpresei aholkularitza espezializatu jarraitua eskaini zaie klima-aldaketaren eta ekonomia zirkularren proiektuen arloan, halakoak teknikoki egituratzeko eta gauzatzeko behar den finantzaketa publikoa eta/edo pribatua bilatzeko laguntzarekin.

4.1.2. "Enpresen erronkak klima-aldaketaren aurkako borrokan, ekonomia zirkularra sustatuz" III. Programako 3 proiektu ekintzaileen laguntzaren eta bizkortzearen bigarren zatia egin da:

- Shandra Martínez Caballero: 'Recreacult: sorkuntza zirkular eta jasangarria'
- Bidasoa Metal 78: "PGMak berreskuratzea (Platinoa, Paladioa eta Rodioa) / Hiri-meatzaritza".

- SAMOVING: “Marketplace jasagarria eta zirkularra material birziklagarriak erosteko”.

4.1.3. Climathon Eibar 2023 prestatzen parte hartu da urrian, ekintzailetzari eta klima-aldaketari buruzko urteko erreferentzia-ekitaldia (Naturklimak 2020az geroztik dihardu ekitaldiarekin lankidetzan). Azkenean, bertan behera utzi behar izan zen ekintzaileen parte-hartze faltagatik. Gaur egun, gogoeta-prozesu bat egiten ari da, datozen urteetan ekitaldiaren erakargarritasuna hobetzeko.

4.1.4. EOI Fundazioak (Industria Antolamenduko Eskolak) eta Espainiako Gobernuaren Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak sustatutako “Acelera Startup” programan laguntzea, Estatuko 50 azeleratzailek baino gehiagok emana. Startupak bizkortzeko programa oso aberatsa da, jasagarritasun-ekintzaileei egokitua (energia eta trantsizio ekologikoa), prestakuntza, aholkularitza eta Networkinga barnean hartzen dituena. Naturklimaren zeregina da Gipuzkoako startupak, ekintzaileak edo trantsizio ekologikoaren arloko enpresa berritzaileak bizkortzeko programa koordinatzea, bizkortze-prozesu osoan laguntza eskainiz, eta Fundazioak eskaintzen dizkien gainerako laguntza-jarduketei osagarri bikain gisa.

## **5. Ekonomia zirkularrean berrikuntza eta ekintzailetza sustatzeko “Enpresen erronkak klima-aldaketaren aurkako borrokan, ekonomia zirkularra sustatuz” programaren VI. deialdia.**

2023ko deialdian 15 hautagaitza aurkeztu ziren, eta Patronatuak 3 proiekturi urteko sariak ematea onetsi zuen irailaren 6an:

- MAZEDONIA DISEINU ELKARTEA: ‘Zirkular Hub Ibiltaria’. Ekonomia zirkularreko laborategi ibiltaria da, ekonomia zirkularren funtsezko hiru alderdiri heltzen dien teknologia erabiltzen duena (plastiko-hondakinen prebentzioa –diseinua–, berrerabilera eta birziklatzea) eta gizarte-arazo horren inguruan kontzientziatzeko ekintza sendoak

bideratzen dituena, gehienbat enpresa- eta hezkuntza-sektoreari begira.

- ECOMAGNET SL: 'NdFeB-zko iman-hauts birziklatua fabrikatzea eskala erdipilotuan'.

2021aren hasieran eratutako startupa. Birziklatze-teknologia disruptiboa, neodimio-burdina-boro hauts (NdFeB) birziklatua fabrikatzeko (prozesu plubimetalurgikoa). Potentzial handia, EBtik kanpoko herrialdeek kontrolatutako lehengai kritikoak berreskuratzen saiatzen baita (EBren lehentasuna da herrialde horien mendekotasun txikiagoa izatea). Laborategi mailan testatutako konponbide teknologiko berritzailea.

- SILVIA ECHEVERRÍA: Natural Active Wear SL:

Proposamen berritzailea da, kirol-oinetako teknikoek fabrikazioa ekonomia zirkularraren hiru premisa nagusien arabera (ekodiseinua, prebentzioa, birmanufaktura eta material birziklatuen erabilera oinetakoen fabrikazioan) birlokalizatzean datzana. Etorkizunera begira, eraldaketa sektoriala lortzea du helburu: kirol-oinetakoek fabrikazioa zirkularra izatea % 100ean. Proiektu handizalea da, Gipuzkoan ekonomia-jarduera berri bat sortzea helburu duena horrelako oinetakoen fabrikazioari lotuta.

Proiektuak irailaren 6an hasi ziren garatzen, eta 2024ko maiatzaren 31ra arte luzatuko dira.

## **6. Renewable Energy HUBen jarduerak garatzea: Ingurumen Zuzendaritza Nagusiaren kudeaketa-gomendioetan oinarrituta eta Fundazioaren 2023-2026 plan estrategikotik abiatuta:**

- TEZNri laguntzea Gipuzkoako ekoizpen-sektoreen deskarbonizazio lehiakorrerako ibilbide-orria prestatzen. Gipuzkoako Klima Aldaketaren Aurkako Borroka Estrategia 2050en (GKAABE) 1.6.1 ekintzarekin bat.

- ii. Trantsizio Ekologikoko Zuzendaritza Nagusiak koordinatzen duen Jasangarritasun Energetikoaren Foru Batzordean parte hartzea. Gipuzkoako Klima Aldaketaren Aurkako Borroka Estrategia 2050en (GKAABE) 1. jomugarekin bat.
- iii. TEZNe koordinatutako Eraldaketa Komunitarioko Bulegoa (Oficina de transformación comunitaria, OTC) Naturklima eraikinean hartuz eta lagunduz herritarrentzako eta enpresentzako energia-trantsizioaren arloko zabalkunde, laguntza eta aholkularitzarako.

#### **7. Harremanak eta aliantza estrategikoak ezartzea eragile pribatuekin eta funtsezko erakunde laguntzaileekin toki-, erkidego-, estatu- eta nazioarte-mailan.**

Eskualdeko eta tokiko mailan etengabeko elkarriketak izan dira KABeko eta ekonomia zirkularreko hainbat eragilerekin (enpresak eta klusterrak, unibertsitateak, zentro teknologikoak, fundazioak eta elkarteak, etab.). Nabarmentzekoak dira 2023an indarrean egondako 5 lankidetzeta-hitzarmenak:

- 1) ADEGIko Ekintzaileen Foroarekin, ekintzaileentzako jasangarritasunaren eta ekonomia zirkularren arloko pizgarri- eta laguntza-programetan elkar osatzeko; enpresari berriek enpresak abian jartzeko faseetan behar dituzten laguntzen, prestakuntzaren eta mentorizazioen esparruan.
- 2) ADEGIko Hotelen Elkartearekin, jasangarritasuna sustatzeko eta bultzatzeko ekintzak eta Gipuzkoako hotel-sektorean klima-aldaketaren aurka borrokatzeko ekintzak antolatzeko.
